

Maria Landa Odriozola
Deba, Gipuzkoa

Aurkibidea

Biografia



Aita Endoia auzoko Beliosoro (Belloso) Goikoa baserrikoa eta ama Aizarnakoa zituen. 11 anai-arreba ziren, eta bera nagusiena zenez, anai-arreba txikiagoak zaintzea tokatu zitzaion, nahiz eta berak nahiago izan eskolara joan. Ezkondu zenean Endoia auzoko Txankarta baserrira joan zen bizi izatera eta 5 seme-alaba izan zituen. Elkarriketa egin zitzaionean, 75 urte zituen.

Zintak

DEB-010

- **Proiektua:** Patxi Aldabaldetrekue beka 2003
- **Elkarrizketatzailea(k):** Dorronsoro, Nagore
- **Data:** 2003-02-19
- **Iraupena:** 46 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber

Pasarteak

1. Umetatik lanean eta eskolarako asti gabe; Beliosorotik Txankartara bizitzera

- **Erref:** DEB-010/005
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>9 urterekin ume-zain egoten zen, gurasoek beste lan batzuk izaten zituzten eta. Bizimodu gogorra zen goserik pasa ez bazuten ere. Beliosoro etxea Mariaren gurasoena zen, ez ziren errenteroak. Aita eskola erakustearen aldekoa zen eta Mariak ere horixe nahi zuen, baina zaharrena izaki etxean aritu behar izaten zuen lanean. 26 urterekin Txankarta baserrira bizitzera joan zenean, han pobreagoak ziren, etxe zaharra zen eta. Etxea beste batzuenaren eta bertan neska-mutilzaharrek eta aitaginarreba bizi ziren. Mariaren gizona 14 urterekin aita gabe geratu zen.</p>

2. Baserriko bizimoduaren aldaketa

- **Erref:** DEB-010/007
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:12:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Batzuetan gurasoei eskatzen zien dirua, eurak errenteroak ziren eta beharra izaten zuten eta. Orduko eta gaurko bizimoduaren arteko ezberdintasunak aipatzen ditu. Diru-iturri urria dago baserritik eta inork ez du bizi nahi baserrian.

3. Senarra Ziolar baserriko erromerian ezagutu eta Itziarko elizan ezkondu

- **Erref:** DEB-010/009

- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:13:11. **Bukatu:** 00:15:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Itziarko elizan ezkondu zen Maria. Goragoko baserri batean, Ziolarren, erromeria egiten zen jaiero eta han ezagutu zuen gizona. Endoia auzoko ingurua aipatzen du. Eliza auzolanean egin zuten eta orduan hasi ziren erromeriak bertan.

4. Mendiko erromeriak ugari

- **Erref:** DEB-010/010
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:15:01. **Bukatu:** 00:16:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Lehen ez zen gaur bezalako festa ugarririk izaten. Maria San Roke egunez aitarekin bi orduko bidea oinez eginda elizara joaten zen.Orduan erromeria egiten zen, ez zen gaurko kaleko festarik. Herniora ere joaten ziren soinua hartuta 4 orduko bidean, goizaldean aterata, eta Aittolara. Mendiko erromeriak ugariak ziren.</p>

5. Ezkonbidaian Bilbon eta Zaragozan

- **Erref:** DEB-010/011
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:16:51. **Bukatu:** 00:20:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Lehengo eta gaurko ezkontza eta banketeak aipatzen ditu. Ezkontza bazkaria Itziarren egin zuten. Bilbon eta Zaragozan pasa zituzten 8 egun ezkon bidaian eta inguru haietan zituzten senitarteko moja eta fraideei buruz hitz egiten du.

6. Eskolan Endoian, Zestoan eta Zarautzen ibilia

- **Erref:** DEB-010/013
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:22:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Mariaren amaren baserria oso pobrea zen, baina ikastera joan eta buru azkarrekoak izaki jakinduri handikoak atera ziren. Gurasoek beti izan zuten erakusteko zaletasuna eta senide denak eskolan ibiliak dira. Mariak gaztetan Endoian eta gerora Zestoan ikasi zuen. Zarautzen izebaren etxean bi urte pasa zituen eta mojekin ikasi zuen, erdara ulertu ezinda.

7. Osaba baten lehengusinak erakutsi zien erdaraz

- **Erref:** DEB-010/014
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:22:45. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gerra-garaian amak osaba baten lehengusina ezkutuan etxera ekarri zuen eta hark euskaraz ikasten zuen bitartean, Mariak eta etxekoek erdaraz ikasi zuten. Osaba oso ezaguna zen, maisu ibilia. Haren inguruko kontuak.

8. Aita zinegotzi izandakoa

- **Erref:** DEB-010/016
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:25:18. **Bukatu:** 00:26:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Mariaren aita zinegotzia zen eta Franco-ren garaian nazionalisten botuak egiten ibili eta multa jaso zuen. Osaba, berriz, gerrara bidali zuten 7 urterako eta Franco-rekin ibili zen. Orduko gerrako kontuak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com